

BALDINTZA-AGIRIAK, IKUS-ENTZUNEZKO BATZUK GRABATU ETA EDITATZEKO ETA HAIEI LOTUTAKO EUSKARRI KOMUNIKATIBOAK EGITEKO PROIEKTU BAT KONTRATATZEKO

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio-kontratuaren xedea da proiektu hau egitea: ikastetxean euskaraz ikasten ari diren haurrak dituzten familia nafarrei zuzendutako hitzaldi batzuk grabatzea, eta ikus-entzunezko material hori editatzea; asmoa da familia horiek sentsibilizatzea eta ikaskuntza-prozesurako motibatzea.

Dokumentu honetan arautzen dira aldeek alderdi juridiko, administratibo, ekonomiko eta teknikoetan dauzkaten eskubide eta betebeharrak zehazten dituzten itun eta baldintzak, zeinak kontuan hartu behar baitira ikus-entzunezko materialekin eta euskarri teknikoekin egindako dibulgazioko proiektu bat kontratatzean.

Zerbitzu-kontratu honen xedeari dagokion Kontratu Publikoen Hiztegi Komunekeko nomenklatura (CPV kodifikazioa, Batzordearen 2013/2008 (EB) Erregelamenduan ezarria) honako hau da: 71356000-8 Zerbitzu teknikoa.

Kontratua administratiboa izanen da eta kontratugileak honako hauen mende geldituko dira: baldintza agiri honek ezartzen duena, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratazioa arautzen duten beste xedapen guztiak.

Lote bakarra eskainiko da; izan ere, egin beharreko lanak proiektu beraren parte dira, eta lotura banaezina dago haien artean.

2. ENPRESA LIZITATZAILEAK EGIN BEHARREKO LANAK

Hauetako dira enpresak egin beharreko lanak:

- 10 minutuko 3 hitzaldi ele bitan (euskara eta gaztelania) grabatzea eta editatzea (karatulak, grafismoa...). Denera, 6 bideo labur, 2 hizlari bakoitzeko (bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz). Bideo horiek Youtuben zabalduko dira. Bi kamerarekin eta pantaila batekin grabatu beharko da, hizlaria errazago ari dadin. Nafarroako Gobernuaren logotipoak bideoen hasieran eta amaieran agertu beharko dira (amaierako audio logo batekin batera). Halaber, grafismoak bat etorri

behar du www.era.eus logotipoaren estetikarekin eta aurreko edizioetako bideoekin.

- 6 podcast, 3 euskaraz eta 3 gaztelaniaz, hiru hitzaldi horien grabazioetan oinarrituta. Enpresak sarrerako eta irteerako kareturen grafismoa sortu beharko du, sarrerako eta irteerako musika aukeratu, eta postprodukzioaren edizioaz arduratu. Nafarroako Gobernuaren audio logoak bideoen hasieran eta amaieran agertu beharko dira.
- Material berria grabatzea eta hura editatzea 30 segundoko bi sustapen bideoetarako, bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Enpresa arduratuko da bideoen gidoi grafikoaz (storyboard), bideoen grabazioaz eta ondorengo edizioaz (grafismoa, baliabide irudiak, etab.). Bideoen egokitzapenak egin beharko dira sare sozialetan zabaltzeko (Facebook, Instagram, Twitter eta WhatsApp). Bideoei azpitituluak jarri behar zaizkie, dagokien hizkuntzan. Nafarroako Gobernuaren logotipoak bideoen hasieran eta amaieran agertu beharko dira (amaierako audio logo batekin batera).
- Gutxienez 6 bideo labur edo informazio-pilula grabatu eta editatu (hizlari bakoitzeko bi, euskaraz bat eta gaztelaniaz bestea). Bideo horiek 30 segundo iraunen dute, eta sare sozialetan zabalduko direnez (Facebook, Instagram, Twitter eta WhatsApp) bakoitzerako behar diren egokitzapenekin editatuko dira. Informazio-pilula guztiek azpitituluak izanen dituzte, gutxienez dagokien hizkuntzan. Nafarroako Gobernuaren logotipoak bideoen hasieran eta amaieran agertu beharko dira (amaierako audio logo batekin batera).
- Edukien euskarri grafikoak egokitzea: hau da, hitzaldi zikloa sustatzeko kartel orokor bat eta beste 3 kartel egokitzea –bat hitzaldi bakoitzeko—. Horiek guztiak bi bertsiotan egingen dira: bata ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz) eta bestea euskaraz, betiere formatu digital inprimagarrian; eta sare sozialetan hedatzeko egokitzapenak ere egingen dira.
- Enpresa adjudikaziodunak Euskarabideari eman beharko dizkio hitzaldietan, sustapen-bideoetan eta informazio-piluletan erabilitako azpitituluen artxiboak, .SRT eta SBV fitxategi-formatuan.

Beraz, enpresa adjudikaziodunak grabazio eta edizio lanak egin beharko ditu, bai eta grabatzeko egunak hizlariekin koordinatu ere.

Egin beharreko lanak unitate kudeatzailearekin hertsiki koordinatuta egingen dira; unitate horrek zehaztuko ditu hitzaldietako hizlariak eta edukiak, baita grabazio lekua ere. Enpresa adjudikazioduneko talde teknikoaren zuzendaria arduratuko da unitate kudeatzailearekin koordinatzeaz, eta egiaztatu beharko du baduela maila egokia euskaraz (gutxienez B2).

Egin beharreko lanen kronograma eman beharko dio enpresa adjudikaziodunak unitate kudeatzaileari, kontratua sinatu eta 30 eguneko epean. Lanen lehen bertsioen emaitza 2024ko urriaren lehendabiziko hamabostaldian entregatu behar da, eta azken lana urte horretako azaroaren 20 baino lehen entregatu beharko du enpresak. Enpresa adjudikaziodunak unitate kudeatzaileari aurkezten dion dokumentazio guztia gutxienez euskaraz idatzi beharko du, koordinazio-lanak euskaraz egingen baitira.

Kontratua luzatuz gero, materialak eta lanak entregatzeko datak kontratazio organoak eta kontratistak adostuko dituzte urte bakoitzeko urtarrilean.

Nafarroako toki entitateetako euskara zerbitzuetako bi ordezkari parte hartuko dute proiektuaren edukien diseinuan eta koordinazioan, Euskarabidearekin batera.

3. KONTRATAZIO ORGANOA ETA UNITATE KUDEATZAILEA

Kontratazio organoa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren izenean eta hura ordezkatzuz. Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua izanen da organo kudeatzailea.

4. ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Agiri honen xede den kontratua prozedura irekia erabiliz adjudikatuko da, bat etorriz Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritakoarekin. Espedientea tramitazio arruntekoa da.

5. GAUZATZEKO EPEA

Adjudikazio epea kontratua formalizatu eta biharamunean hasiko da eta 2024ko azaroaren 30ean bukatuko; berariaz luzatzen ahalko da lau urtez, iraungi baino lehen, bi alderdiek hala adosten badute.

Kontratuaren hasierako indarraldiaren ondoko luzapenak berariaz eta alderdien adostasunarekin formalizatuko dira, behar den aurrerapenarekin eta kontratazio organoaren onespena izanik. Enpresak kontratua luzatu nahi duela adierazteko mezu bat idatzi behar du Euskarabidera, ondoko helbide elektroniko honetara: euskarabidea@navarra.es

Ez da kontratua luzatzerik izanen baldin eta ez bada bi alderdiak ados daudela erakusten duen frogarik, edo beste kontratu bat sartzen bada indarrean.

6. LIZITAZIOAREN GEHIENeko AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia 42.200 eurokoa da, BEZik gabe, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulaturik, eta honela banatuko da:

2024. urtea: 8.440 euro (BEZik gabe).

2025. urtea: 8.440 euro (BEZik gabe).

2026. urtea: 8.440 euro (BEZik gabe).

2027. urtea: 8.440 euro (BEZik gabe).

2028. urtea: 8.440 euro (BEZik gabe).

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua 10.212,40 eurokoa izanen da (BEZa barne).

Gastua 2024ko gastu aurrekontuko B30002 B3200 2279 334103 "Hautzaroan euskara sustatzeko programa" partidaren kargura ordainduko da.

Ez da onartuko lizitazioaren aurrekontu horretatik goitiko eskaintzarik.

Ez da onartuko prezioak berrikusterik kontratua indarrean dagoen bitartean.

7. PERTSONA EDO ERAKUNDE LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Kontratazio prozeduran parte hartzen ahalko dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerriarrek, kontratatzeko debekurik edo bateraezintasunik ez badute eta interes gatazkan ez badaude. Betekizun horiek guztiak eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den unean bete behar dira.

Euskarabideak kontratuak egiten ahalko ditu aldi baterako enpresa elkarteekin edo taldean parte hartzen duten pertsonekin, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluan xedatzen diren baldintzetan. Baterako parte-hartze hori agiri pribatu baten bidez egiaztatu beharko da, non lizitatzailleek batera aurkeztu nahi dutela adierazi behar baitute, bai eta enpresa bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahalzun bakarra izendatu ere; azken horrek ahalmenak izanen ditu parte-hartzaile guztien eskubideak erabiltzeko eta kontratutik eratorritako betebeharrak betetzeko, hura azkendu arte.

Aldi baterako elkarte batean edo talde batean parte hartzen duten lizitatzailleek betebeharrak solidarioa izanen dute.

Lizitazio eskaintza bateratua aurkezten duten enpresek ezin izanen dituzte bakarkako proposamenak aurkeztu sorta berean, ez eta aldi baterako beste elkarte batean sartuta edo beste enpresa batzuekin elkartuta ere. Debeku hori hausten bada, ez da onartuko enpresa lizitatzaille arau-hausleak sinatzen duen eskaintzarik.

Lizitazioaren ondorioetarako, aldi baterako elkarteetan aurkezten diren enpresek eta taldean parte hartzen duten pertsonak adierazi beharko dituzte batasun horiek osatzen dituzten kideen izenak eta inguruabarrak, baita kide bakoitzaren partaidetza ere, eta adierazi beharko dute konpromisoa hartzen dutela aldi baterako elkarte gisara formalki eratzeke kontratuaren adjudikaziodun izatekotan. Kide bakoitzak egiaztatu beharko du jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala dituela, agiri honetan ezarritakoaren arabera.

Baldintza horiek egiaztatuko dira pertsona edo entitate lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpenarekin. Adierazpen hori agiri honen I. eranskinean dago.

8. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Adjudikaziodun proposatuko den pertsonak kontratua egikaritzeko kaudimen ekonomikoa eta finantzario aski duela frogatu beharko du, hau da, enpresak ekonomia eta finantza egoera egokia duela, halakoa non izaera horietako ezein gorabeherak ez duen arriskuan jarriko kontratua behar bezala egikaritzea.

Kontratu honetan, egiaztatuko da azken hiru ekitaldietan (2021-2022-2023), jarduerar-
arlo berean, kontratuaren xedekoa baino zenbateko goragoko negozio-bolumen
globalari buruzko adierazpen baten bidez.

Kontratuaren indarraldi osoan eutsi beharko zaio eskatutako kaudimen ekonomikoari.

Baterako parte-hartzeetan, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa frogatuko dira batera
aurkezten diren enpresetako edozeinek emandako datuekin, edo enpresa guztien datu
metatuekin.

9. KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA

Adjudikaziodun proposatuko den pertsonak kaudimen teknikoa egiaztatu beharko du,
hau da, kontratua egoki egikaritzeko gaitasun tekniko eta profesionala dituela.

Kaudimena egiaztatzeko, erakunde lizitatzailleak aurkeztu behar du azken hiru urteetan
(2021, 2022 eta 2023) eman dituen zerbitzu nagusien zerrenda; zerbitzu horiek, betiere,
izan behar dituzte kontratu honen xedearen ezaugarri berak edo antzekoak. Zerrenda
horretan xehetasun hauek adierazi behar dira: zenbatekoa, data, eta zerbitzu horien
hartzaile publikoa edo pribatua, betiere guztira lizitazio honetarako aurreikusitako
aurrekontuaren zenbateko bera edo handiagoa osatu behar dute, eta zerbitzuaren
entitate hartzaileek behar bezala gauzatu izanaren ziurtagiriekin abalatuta egon.

Ziurtapen hori ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Gobernuari emandako laguntza
zerbitzuen kasuan; halakoetan aski izanen da, besterik gabe, entitate horrendako
egindako zerbitzuak aipatzea.

10. ESKAINTZEN AURKEZPENA

10.1. TOKIA ETA EPEA

Proposamenak Lizitazio Elektronikoaren Nafarroako Plataformaren (hemendik aitzina,
PLENA) bidez soilik aurkezten ahalko dira; era berean, PLENAREN bitartez eginen dira
interesdunekin egin beharreko komunikazio oro eta gainerako tramiteak.

Kontratazioaren Atarian argitaratutako lizitazioaren iragarkiaren bidez jotzen ahalko da
PLENARA; handik, interesa duen edonork deskargatzen ahalko du mahaigaineko
aplikazioa. Horren bidez, zifratze mekanismo estandarrak baliatuz, eskaintzak
prestatzen eta aurkezten ahal dira, gutun-azal digitalaren bidez, bai eta gordailu
seguruan gorde ere.

Deskargatu ondotik, aplikazio hori baliozkoa izanen da PLENaren bitartez beste edozein lizitazio egiteko.

Eskaintzak lizitazioa eginen duenaren mahaigainean zifratzen dira zifratze mekanismo estandarrak erabiliz. Behin aurkeztuta, gordailu seguruan gordetzen dira.

Eskaintzak aurkezteko epea lizitazioarako iragarkian finkatuko da, eta gutxienez 15 egunekoa izan beharko da, iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Gutun-azalak irekitzeko unean epez kanpoko aurkezpen bat hauteman bada eta aurkezpen horren gaineko arrastoren bat jaso bada, arrastoaren baliozkotasuna egiaztatuko da; arrastoak aurkezpenarekin bat egiten badu eta eskaintza, halaber, luzatutako 24 orduko epearen barruan aurkeztu bada, eskaintza baliozkotzat jo eta ireki eginen da.

Aitzitik, arrastoak bat egiten ez badu edo eskaintza luzatutako 24 orduko epeetik kanpo jaso bada, eskaintza baztertuko da eta ez da inoiz ere haren edukia irekiko.

Eskaintza epez kanpo aurkeztu bada eta enpresa edo entitate lizitatzailerak esaten badu eskaintza aurkeztean arazo teknikoak zeudela, eskaintza aurkezteko unean plataforman arazo teknikorik egon zen egiaztatuko da. Plataformaren funtzionamendu arruntan gorabehera teknikoren bat gertatu bazen bakarrik onartuko da aurkeztutako eskaintza. Pertsona edo entitate lizitatzaileraren ezagutza ezak edo plataformarekin ikustekorik ez duten arazo teknikoek ez dute justifikatuko eskaintza denboraz kanpo aurkeztea, eta lizitazio prozeduratik baztertzea ekarriko dute; gauza bera gertatuko da eskaintzak ezarritako bidea ez den batetik aurkeztuz gero.

10.2 PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Enpresa lizitatzailerak Lizitazio Elektronikoaren Plataformak eskatzen dituen tramite eta inprimaki guztiak beteko dituzte eskaintzak aurkezteko.

Eskaintzak aurkezten edo/eta sinatzen dituzten pertsona fisikoak behar bezala identifikaturik egon beharko dira, eta ordezkari sinatzaileen kasuan, Lizitazioaren Plataforman jarduteko eta aritzeko baimena emanen dien ahalorde aski izan beharko dute.

Sinadura elektroniko aitortuarekin sinatu beharko da eskaintza. Sinadura elektroniko hori ziurtapen zerbitzuen emailen batek baliozkotasunez emana izanen da, eta agiriaren, eskaintzaren eta hari lotutako dokumentu guztien identitatea eta osotasuna bermatuko

ditu, Sinadura Elektronikoki buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean eta kontratazio publiko elektronikoen gainerako xedapenetan xedatutakoaren arabera.

Eskaintza elektronikoki eranstean zaion banakako fitxategi bakoitzak 50 MB-eko tamaina izan behar du, gehienez ere. Eskaintzaren tamaina osoa, haren dokumentu guztiak barne, 100 MB-ekoa izan behar da, gehienez ere. Plataformak ez du mugarik jartzen eskaintza bati erantsi dakikeen fitxategi kopuruan.

Erabili ohi diren formatuak onartuko ditu PLENAk eskaintzaren aurkezpenean eranstean diren dokumentuendako (doc, docx, xls, xlsx, ppt, pptx, rtf, sxw, abw, pdf, jpg, bmp, tiff, tif, odt, ods, odp, odi, dwg, zip); bestelako formatuak dituzten artxiboak erantsi nahi badira, artxibo konprimatu batean (ZIP) bilduz eranstean ahalgo dira.

Plataformako formularioetan sartutako balio objektiboen eta irizpide bakoitzari eusten dioten dokumentu atxikien artean desadostasunak badaude, entitate edo enpresa lizitatzailerak elektronikoki izenpetutako dokumentu eta eranskinek izan behar dute lehentasuna.

Eskaintza nork igortzen duen alde batera utzita, eskaintza elektronikoa sinatu behar du enpresaren edo entitatearen izenean eta hura ordezkatzuz kontratatzeko ahalorde askiatsia duen pertsonak. Beraz, bi aukera daude:

- Eskaintza osoa elektronikoki sinatzen da, enpresa edo entitateko ahalduen ziurtagiriarekin, eta horrek baliozkotasuna emanen dio aplikazioaren inprimaketan sartutako informazio ekonomikoari.
- Edo eskaintza legezko pertsona baliozko baten ziurtagiriarekin sinatzen da (pertsona fisiko edo juridiko ordezkariaren baliozko ziurtagiria) eta ahalduak sinatutako dokumentu elektronikoki eranstean dira.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du pertsona edo entitate lizitatzailerak agiri honetako klausulak onartzen dituela baldintzarik gabe, eta erantzukizunpeko adierazpena egiten duela adieraziz aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta lanen kontrataziorako eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Enpresa lizitatzailerak eskaintza ixten duenean, haren edukiaren arrasto bat –laburpen kriptografikoa– sortuko da, eskaintza aurkeztu izanaren egiaztagiri gisa. Lizitatzen duenak arazorik badu PLENA plataforman bere eskaintza aurkezteko tenorean, arrastoa

–laburpen kriptografikoa– eskaintzak aurkezteko epemugaren barnean bidaliz gero kontratazio-organoari (Kontratazio Atarian ezarritako harremanetarako helbide elektronikora), epea 24 orduz luzatuko da eskaintza osoa PLENaren bidez jasotzeko eta aurkezpena osatutzat jotzeko. Beharkizun horiek bete ezean, ez da onartuko lizitazioaren iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen den parte hartzeko eskaerarik.

Agiriak zer ekipotatik aurkeztu behar diren, beharrezkoa da ekipo horrek 5 minututik gorako desfasea ez izatea Nafarroako Gobernuaren zerbitzariaren orduarekin.

Nafarroako Gobernuko zerbitzariak denbora unibertsal koordinatua (UTC) baliatzen dute, hau da, erreferentziako nazioarteko laborategiek mantentzen duten denbora eskala unibertsala, honako zehaztasun hau duena: +/- 1 segundo. Hori izanen da, hortaz, zerbitzu elektronikoen ordu ofiziala.

- Lehen mailako ordu-iturria: hora.roa.es (Armadaren Errege Institutua eta Behatokia: bi zerbitzari San Fernandon, Cadizen, eta hirugarren bat Madrilen)
- Bigarren mailako ordu-iturriak:
 - o canon.inria.fr INRIA, Paris
 - o i2t15.i2t.ehu.es, EHU

Lizitazio elektronikoaren plataforman eskaintza honetarako ezarritako egituraren arabera aurkeztuko dira pertsona edo entitate lizitatzailen proposamenak eta gutun-azalak hiru izanen dira, honela identifikatuta:

- A gutun-azala: Dokumentazio orokorra.
- B gutun-azala: Irizpide kualitatiboak
- C gutun-azala: Formula bidez zenbatestekoak diren irizpideak.

Gutun-azal bakoitzean honako dokumentu hauei dagozkien artxibo elektronikoak sartuko dira:

A gutun-azala: “Dokumentazio orokorra”

Lizitatzailaren erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek frogatzen dituenak: administrazioarekin kontratatzeko beharkizun orokorrak, nortasuna, gaitasuna eta kaudimena. Horretarako, I. eranskinean ezarritako eredua erabiliko da.

Aipaturiko adierazpenean, nahitaez paratu beharko da helbide elektroniko bat, jakinarazpen telematikoak jasotzeko.

- Beste batzuekin batera edo enpresen aldi baterako elkarte batean parte hartzen duten pertsonen kasuan, kide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du. Gainera, agiri pribatu bat gehituko da, non lizitatzailleek batera aurkeztu nahi dutela adierazi behar baitute, bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahalدون bakarra izendatu, kontratuak azkendu arte sortzen dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko ahalmenak izanen dituen. Enpresek eta ahalدونak sinatu beharko dute agiri hori.

- Azpikontratazioetan, lizitatzailleak erantzukizunpeko adierazpenean jaso beharko du, batetik, azpikontratisten zerrenda eta, bestetik, baduela agiri bat egiaztatzen duena konpromiso formal bat dagoela enpresa azpikontratista kontratua egikaritzera behartzeko ahalmena duten pertsonekin.

B gutun-azala: "Irizpide kualitatiboak"

Gutun-azal honetan, lizitatzailleak aurkezten duen dokumentazio tekniko guztia sartu behar da, Kontratuari buruzko Foru Legearen 97. artikuluekin bat. Irizpide kualitatiboak baloratzeko eta puntuatzeko erabiliko da dokumentazio hori, eta hartan azaldu beharko da zer prestazio egin beharko diren kontratua egoki egikaritzeko.

Laneko proposamen teknikoa ere eduki behar du, bigarren puntuan definituriko helburuei egokitua eta ezarritako baldintza teknikoei doitua.

Bertan, zehaztuko da ikus-entzunezko batzuk grabatu eta editatzeko eta horiei lotutako euskarri komunikatiboak egiteko proiektua. Era berean, adjudikazio-irizpideen arabera baloratu daitezkeen datuak ere sartu behar dira horiek kontuan hartzea nahi izanez gero, C gutun-azalean formulen bidez baloratu beharreko alderdiak sartu gabe.

Halaber, enpresa lizitatzailleak ahalik eta zehatzen jaso beharko ditu proiektuaren ezaugarri guztiak eta, nolanahi ere, baldintza hauek zehaztu beharko dituzte:

- Antzeko proiektuetan enpresak duen ibilbide eta esperientzia profesionala.
- Talde teknikoa zuzentzen duen pertsonaren curriculum, euskaraz duen mailaren egiaztatzea barne. Komunikazioaren arloko esperientzia baloratuko da.
- Proiektuaren txostena.

C gutun-azala: "Formula bidez zenbatetekoak diren irizpideak"

Gutun-azal honetan adieraziko dira eskaintza ekonomikoa eta formulen edo puntuazio objektiboaren bidez zenbatestekoak diren irizpideei buruzko eskaintza.

Lizitatzailerak bakoitzak agiri honen II. eta III. eranskinetan ezartzen diren ereduaren arabera jasoko ditu eskaintza ekonomikoa eta formula bidez zenbatestekoak diren irizpideei dagokiena.

Proposamen ekonomikoa (II. eranskina) behar bezala sinatu beharko du pertsona edo entitate lizitatzailerak edo hura ordezkatzeko duenak, eta ezin izanen du gainditu kontratu honetarako ezarritako gehieneko prezioa. Prezioak eurotan emanen dira eta ulertuko da bertan barne hartzen direla zerga eta tasa aplikagarri guztiak, eta sortzen den zeinahi gastu.

Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du adjudikazioduna gai izan dadin kasuan kasuko sektoreko hitzarmenaren aplikaziotik heldu den kostuari aurre egiteko, gutxienez ere; finkaturiko soldaten orduko prezioak ezin izanen dira inolaz ere apalagoak izan hitzarmeneko orduko prezioak, gehi hitzarmeneko orduko prezioari buruzko hobekuntzak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino.

Eskaintako prezioaren kalkulak barne hartuko ditu jarduera egiteak ekarriko dituen ordainsari eta egiturazko kostu guztiak; besteak beste:

- Langileen ordainsariak. Gutxienez, Ikus-entzunezko Ekoizpenaren Industriaren (teknikarien) Estatu mailako III. Hitzarmen Kolektiboan ezarritako soldata baldintzak bete beharko dira.
- Egiturazko gastuak, kontratu honen xedearekin zuzenean loturik badaude.

11. PROPOSAMENAK BALORATZEAZ ARDURATZEN DEN ORGANOAK

Kontratua kudeatzen duen unitateko teknikarien ardura izanen da pertsona edo entitate lizitatzailerak onartzea, eskaintzak baloratzea eta adjudikazio proposamena egitea.

12. DOKUMENTAZIOA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, unitate kudeatzaileak A gutun-azalean aurkeztutako dokumentazio administratiboa kalifikatuko du.

Aurkeztutako dokumentazioa ez bada osoa edota zalantzaren bat sortzen bada, Lizitazioaren Plataformako jakinarazpenen modulua baliatuz eskatuko zaio eskaintza

aurkeztu duenari dokumentazio hori osatzeko edo akatsak zuzentzeko, gutxienez bost egun naturaleko epean, errekerimendua jakinarazten den egunetik hasita. Izapide honetan aurkeztutako dokumentazioak inolaz ere ez ditu eskaintzaren baldintzak aldatzen ahal.

Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, unitate kudeatzaileak onartutako enpresen B gutun-azalak ("Irizpide kualitatiboak") ireki eta baloratuko ditu, aipatutako adjudikazio-irizpideen arabera.

Eskaintza kualitatiboak baloratu ondoren, formulen bidez kuantifika daitezkeen eskaintzak dauzkaten gutun azalak irekiko dira, eta unitate kudeatzaileak irizpide kuantifikagarrien balorazio teknikoaren emaitza argitaratuko da lizitazio plataforman.

13. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Kontratuaren adjudikazioa eginen da kostu-efizientzia irizpideei (prezioa) zein irizpide kualitatiboei jarraikiz, adjudikazioa kalitatearen eta prezioaren arteko erlazorik hoberena duen proposamenari emateko asmoz, halakotzat harturik puntu gehien duen eskaintza adjudikazio irizpide hauek aplikatuta:

13.1 Irizpide kualitatiboak: proiektuaren balio teknikoa, gehienez ere 50 puntu.

a) Lantaldearen aurkezpena, curriculum eta antzeko proiektuetan duen esperientzia.	25
- Antzeko proiektuetan enpresak duen ibilbidea eta esperientzia.	10
- Talde teknikoa zuzentzen duen pertsonaren curriculum.	10
- Enpresak dituen baliabide materialak.	5
b) Proiektuaren eta materialen antolaketa eta kudeaketa	25
- Proposamenen bideragarritasuna eta egokitasuna eta proiektuaren koordinazioa.	15
- Zikloa sustatzeko eta hedatzeko euskarriak proposatzea, baldintza-agirietan proposatutakoez gain.	10

Apartatu honetan ezarritako puntu guztien erdia gutxienez lortzen ez duten proposamenak automatikoki baztertuko dira. Hori guztia teknikoki desegokitza jotako eskaintzak edo kontratu hau zuzen egikaritutako dela bermatzen ez dutenak baztertzea baztertu gabe.

13.2. Formula bidez zenbatestekoak diren irizpideak: gehienez ere 50 puntu.

a) Azpigituluaren hizkuntzak Informazio pilulek azpigituluak edukiko dituzte, dagokien hizkuntzan (euskaraz eta gaztelaniaz). Eskakizun horretatik aurrera, 2 puntu emanen dira pilula bakoitzeko, SRT eta SBV artxiboak gaztelaniatik frantsesera, ingelesera, arabierara, portugalerara, errumanierara eta bulgarierara itzultzeagatik (12 puntu gehienez ere)	12
b) Informazio-pilulak Ezarritako nahitaezko informazio-pilulez gain, enpresak gehiago egiten baditu, bakoitzeko 2 puntu emanen dira (gehienez 4 puntu).	4
c) Sare sozialetan hedatzea 4 puntu emanen dira sare sozialetan hedatzeko planteamendu bat azaltzen bada.	4
d) Irizpide sozialak Langabezia dauden emakume gazteak (18-30 urte) kontratatzea: 2,5 puntu emanen dira lantaldean sartzen den emakume bakoitzeko, gehienez 5 puntura arte. - Desgaitasuna dutenen kontratazioa: 2,5 puntu emanen dira % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen langile bakoitzeko (kontratura atxikitako taldearen barnean egon beharko dute), gehienez 5 puntura arte.	10 5 5
e) Eskaintza ekonomikoa:	20
Gehieneko puntuazioa eskaintza merkeenari emanen zaio. Gainerako eskaintzek formula hau aplikatu ondoan ateratzen den puntuazioa izanen dute: $\text{Puntuak} = \frac{(\text{Kontratuaren gehieneko aurrekontua} - \text{Entitate lizitatzaillearen proposamen ekonomikoa}) \text{ BEZik gabe}}{(\text{Kontratuaren gehieneko aurrekontua} - \text{Gutxieneko aurrekontua}) \text{ BEZik gabe}} \times 20$ Eskaintza ekonomikoetako batek bat egiten badu lizitazioko gehieneko aurrekontuarekin, 0 puntu eskuratuko ditu.	

13.3 Eskaintza baxuegia: Eskaintza baxuegitzat joko da lizitazioko gehieneko prezioarekiko beherapena % 25 baino gehiago bada; halakoetan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 98. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

13.4 Bi entitate lizitatzaileraren edo gehiagoren guztizko puntuazioan berdinketa gertatuz gero

Bi enpresa lizitatzaileraren edo gehiagoren arteko berdinketa gertatuz gero, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 99. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Beraz, berdinketa gertatzen bada, genero-berdintasunaren arloko jardunbide egokiak egin dituela egiaztatzen duen enpresaren alde ebatziko da. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten langile finkoen ehuneko handiena duen enpresaren alde egingen da, betiere enpresan desgaitasuna duten langileak plantillaren % 3 badira gutxienez kaudimena egiaztatzeko unean, eta, halakorik ezean, edo berdinketak irauten badu, behin-behineko langileen ehuneko txikiena duen enpresaren alde, betiere ehuneko hori % 10etik gorakoa ez bada. Hala eta guztiz ere berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da.

Beraz, berdinketa gertatuz gero, unitate kudeatzaileak behar diren agiriak eskatuko dizkie enpresa ukituei, eta gutxienez bost egun naturaleko epea emanen die agiri horiek aurkezteko.

14. ADJUDIKAZIODUN GISA PROPOSATURIKO ENTITATE LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Behin adjudikazioaren proposamena modu elektronikoan jakinarazita, proposatutako pertsona edo entitate lizitatzailleak edo lizitatzailleak 7 egun naturaleko epea izanen du edo dute dokumentazio hau aurkezteko Lizitazioaren Plataformaren bidez:

a) Nortasuna frogatzen duen agiria:

- Lizitatzaillea pertsona fisikoa bada, nortasun agiri nazionala edo araudiaren arabera hura ordezkatzeko duen agiria.
- Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, eratzeko eta, halakorik bada, aldatzeko eskritura aurkeztu beharko dira, dagokien erregistroan behar bezala inskribatuak.

- Proposamenak beste pertsona baten izenean aurkezten edo sinatzen dituztenek honako hauek aurkeztu beharko dituzte: ahalorde askietsia eta ahalduaren nortasun agiri nazionala. Lizitatzailerak pertsona juridikoa bada, ahalordea dagokion erregistroan behar bezala inskribaturik egon beharko da, betebeharrak hori eskatzekoa denean aplikagarri zaion merkataritzari buruzko legeriaren arabera.

- Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailerak Borondatezko Erregistroan (apirilaren 19ko 174/2004 Foru Dekretuaren bidez sortua) inskribatuta dauden enpresen kasuan, pertsona edo entitate lizitatzailerak ez du bere nortasunari edo ordezkartzari buruzko agiririk aurkeztu beharko, baldin eta aurkezten baditu erregistro horretan inskribatuta egotearen ziurtagiriaren kopia, modu elektronikoa Internet bidez eskuratua, eta horren indarraldiaren gaineko erantzukizunpeko adierazpena.

b) Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere hiru hilabete lehenago egin, lizitatzailerak Nafarroako Zerga Ogasunarekiko zerga betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzen duena.

c) Lizitatzailerak zerga Nafarroatik kanpora ordaintzen badu, aurreko puntuan aipatzen denaren antzeko ziurtagiria, Zerga Agentziak edo foru ogasunak egin.

d) Adjudikaziodunak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneraturik dituela egiaztatzen duen agiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere sei hilabete lehenago egin.

e) Kaudimena (ekonomiko eta finantzarioa zein tekniko eta profesionala) frogatzen duten agiriak, baldintza-agiri honen 8. eta 9. klausuletan ezarritako moduan.

f) Kasua bada, irizpide sozialetan sartutako pertsonak kontratatu direla egiaztatzen duten kontratuak.

Dokumentazio hori adierazitako epean aurkezten ez bada, eta horren ondorioz kontratua ezin bada formalizatu, kontratua suntsiarazi ahal izanen da, interesdunari entzun ondoren. Kasu horretan, interesdunak kontratuaren balio zenbatetsiaren % 5eko penalizazioa ordaindu beharko du, bai eta galeren kalte-ordain osagarria ere, portzentaje horren gainetik eragindako kalte eta galerengatik.

15. KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA

Unitate kudeatzaileak behar den adjudikazio-proposamena igorriko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileari, kontratua adjudikatzeko ebazpena eman dezan. Proposamen horretan jasoko dira ezarritako irizpideak aplikatuz proposamen bakoitzari buruz egindako balioespenak, eta horren barrenean, berriz, proposamen onargarria egin duten lizitatzailen lehentasunaren hurrenkera, atera duten puntu kopurua zehaztuz eta adieraziz, hala behar badu, eskaintako zer hobekuntza eman diren ontzat.

Adjudikazioa behar bezala arrazoitu beharko da, bai eta pertsona edo entitate lizitatzailer guztiei jakinarazi ere; gainera, horren eraginkortasuna etenda geldituko da 10 egun naturalean, adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik hasita, eskaintza bakarra aurkeztu denean izan ezik.

Kontratua agiri administratibo batean formalizatuko da, adjudikazioaren etete epea bukatu ondoko 5 egun naturaleko epearen barnean. Administrazioak eta kontratistak formalizatuko dute kontratua.

16. KONTRATUA EGIKARITZEA

16.1.- Kontratua Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren gainbegiratzeko, ikuskatzeko eta kontrolaren pean gauzatuko da.

Lanak egikaritzeko dira klausula hauei eta langile arduradunek idatziz emandako jarraibideei loturik. Kontratistak une oro men egin beharko die indarrean dagoen legeriak administrazio kontratugileari kontratua interpretatzeko, aldatzeko eta suntsiarazteko ematen dizkion ahalmenei.

16.2.- Adjudikazioduna izanen da zerbitzua emateko hautaturiko langileen arduradun bakarra eta, beraz, inola ere ez dute kontratu edo lan harremanik izanen Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuarekin.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak beretzat gordeko du ahalmena enpresari eskatzeko zerbitzua ematen duten langileak ordezkari ditzaiz, non eta, bere iritziz, ez diren ari zerbitzua behar bezainbateko kalitate mailarekin ematen.

16.3. Kontratatzeko diren lanak egiteko behar diren langile guztiek euskaraz aski ongi jakin izan beharko dute adjudikatutako lanak egiteko; gomendatzen da Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparruko C1 mailako euskara titulua izatea.

Enpresa beharturik dago kontratu hau egoki betetzeko beharrezkoak diren ekipoa, baliabide lagungarriak, laneko bulegoa eta langileak ekartzera.

16.4.- Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak ez du inolako harreman funtzional, organiko edo laboralik izanen langileekin, ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez bukatu ondoren.

16.5.- Enpresa kontratistak Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen urtarrilaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuak ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

Halaber, kontratua gauzatzearen ondorioz ekoitzi edo zabaldutako zeinahi dokumentazio, iragarki, dibulgazio material edo informazio materialetan adierazi beharko da Nafarroako Gobernuaren zerbitzu bat dela eta Nafarroako Gobernuaren sinboloa azaldu beharko da, baita Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren aipamena ere, erakunde kontratatzailea den aldetik.

17. LANEN ORDAINKETA

Kontratu-aldi bakoitzean lana amaitutakoan ordainketa bakarra egitea aurreikusten da. Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuak egiaztatuko du lana behar bezala bete dela. Horretarako, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren arabera gauzatutako lanen deskripzio memoria bat aurkeztu beharko du, dagokien fakturarekin batera.

18. KONTRATUA BETETZEA

Pertsona edo entitate adjudikaziodunak proiektua bururatu beharko du kontratuko epean eta kontratazioa arautzen duten agiriei eta bere eskaintzaren edukiari jarraikiz.

Kontratua bete dela egiaztatuko da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren oniritziarekin.

18.1. Ez-betetzeak.

Kontratistaren ez-betetzetzat joko dira honako jokabide hauek:

Ez-betetze arinak

A.1 Ez betetzea langileak edo baliabide materialak kontratua egikaritzean erabiltzeko edo horretara atxikitzeko konpromisoa, agiri honetan eskatu gisan. Lizitazio-

proposamenean zerrendatutako hizlariak bideoetan eta ikastaroetan parte ez hartzea ere sartzen da.

A.2 Lanak entregatzeko epea ez-betetzea.

Ez-betetze astunak

B.1 Kontratua akatsekin exekutatzea, hots, baldintza teknikoetan eskatutako kalitate mailara iritsi gabe.

B.2 Azpikontrataziorako ezarritako baldintzak haustea.

B.3 Kontratuaren unitate kudeatzaileak emandako aginduak ez betetzea, haren exekuzioari dagozkion gaietan.

C. Ez-betetze oso astunak

C.1 Kontratuaren exekuzio-baldintza bereziak ez betetzea.

C.2 Lan edo gizarte arloko betebeharrak ez betetzea langileei dagokienez.

C.3 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko araudia ez betetzea.

18.2 Zehapenak

Kontratatzen ez-betetzeak sailkapen honen arabera zigortuko dira:

a) Ez-betetze arinak, adjudikazio zenbatekoaren % 1ekoa gehienez.

b) Ez-betetze astunak, adjudikazio zenbatekoaren % 1etik % 5erainokoa, kontratatzen arduragabekeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea kontuan hartuta.

c) Ez-betetze oso astunak, adjudikazio zenbatekoaren %5 etik % 10erainokoa, kontratatzen arduragabekeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea kontuan hartuta.

Ez-betetze oso astunen ondoriozko zigorra kontratuaren zenbatekoaren % 20 adinakoa izaten ahalko da, foru lege horren 66. artikuluan aurreikusitako kontratua egikaritzeko baldintza bereziak betetzen ez direnean.

Kontratistari ezartzen ahal zaizkion zigorren gehieneko zenbateko osoa ez da adjudikazio zenbatekoaren % 20 baino gehiagokoa izanen. Ez-betetzeak eragindako zigorrak adjudikazio zenbatekoaren % 10 baino handiagokoak direnean, kontratatze debekua deklaratzeko prozedura hasten ahalko da.

18.3. Arriskua eta mentura.

Kontratua pertsona edo entitate kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da eta hura egikaritzen ari den bitartean gerta daitezkeen galera, matxura edo kalteak kontratistaren kontura izanen dira, batere ukatu gabe haietarako aseguruia egiteko aukera.

18.4. Kontratua egikaritzean eragindako kalte-galerak.

Kontratistari egozten ahalko zaizkio kontratua egikaritzearen ondorioz jabetzaren nahiz hirugarrenen ondasun eta pertsonen eragiten zaizkien kalte eta galera guztiak. Foru Komunitateko Administrazioak bakarrik erantzunen du bere organoen berehalako eta zuzeneko aginduen ondoriozko kalte-galerengatik.

18.5. Kontratistak lan araudia betetzea.

Kontratu horrek errespetatu behar ditu lanari, Gizarte Segurantzari eta laneko osasun eta segurtasunari buruzko lege, araudi eta hitzarmen mailako xedapenak, batik bat enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru apalena hartzen duen azken lan-hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak.

19. JABETZA INTELEKTUALA

Enpresa adjudikaziodunak espresuki onartzen du egindako lanaren emaitzak eta haien jabetza intelektualak Nafarroako Gobernuaren jabetza eskusiboa direla, eta Nafarroako Gobernuak osorik edo partez erreproduzitzen ahalko dituela.

Kontratututako entitateak uko egin beharko dio kontzeptu horien gaineko eskubide orori; etorkizuneko lanetarako erreferentzia gisa soilik erabiltzen ahalko ditu.

Bideoetan, lanetan edo entregatu beharreko gaietan lehendik dauden obrak edo irudi, jabetza industrial edo jabetza intelektualaren eskubideen arabera babestu beharreko beste elementu batzuk sartzen badira, adjudikaziodunak beharrezkoak diren lizentziak, eskubideak edo baimenak lortu eta ordaindu beharko ditu, bideoetan, lanetan edo entregatu beharreko gaietan haiek sartu ahal izateko eta haien gaineko titulartasuna lagatzeko, hemen ezarritakoaren arabera.

20. DATUAK BABESTEIA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Enpresa edo pertsona adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du isilpekotasunez eta lanbideko sekretua gordez jarduteko, laguntzaren xede diren datu eta agiriei

dagokienez. Erabiltzen diren artxibo, base, memoria eta zerrendak oro Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren titulartasunekoak izanen dira. Ezin izanen dira erabili lan horrek ez dituen xedeetarako eta ezin izanen ditu erabili kontratatutako lanaz kanpoko inork.

Enpresa adjudikaziodunak ezin izanen ditu egiten dituen lanen agiriak eta emaitzak baliatu, ezta etorkizuneko lanerako erreferentzia edo oinarri gisa ere, ez badu Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren baimen berariazkoa eta idatzia lortzen horretarako. Baimen berariazkoa eta idatzia beharko du, orobat, ematen zaion informazioa beste entitate publiko nahiz pribatu bati helarazteko.

Gai horretan, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) Erregelamenduan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan, xedatutakoa aplikatuko da, bai eta horiek ordeztan edo aldatzen dituen zeinahi beste arau.

21. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK

Kontratuaren adjudikazioaz, interpretazioaz, aldaketaz eta suntsiarazteaz sortzen diren auzigaiak kontratazio organoak ebatziko ditu, eta haren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztan ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Nafarroako Gobernuak hartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzen ahalko da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin ondoko egunetik hasita, hala xedatzen baitu jurisdikzio hori arautzen duen legeak, 46. artikuluan.

Nolanahi ere, lizitazioan interesa duten enpresek eta profesionalek, aukeran eta aurrekoen ordeztan, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa aurkeztan ahalko dute kontratazio agirien aurka, izapide egintzen edo behin betiko egintzen aurka edo adjudikazio egintzen aurka, baldin eta egintza horien ondorioztan lizitazioetik kanpo gelditzen badira edo haien igurikimenei kalte egiten bazaie.

Erreklamazioa Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian aurkeztan ahalko da, hamar eguneko epean, aurkaratutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta

biharamunetik hasita, eta bakar-bakarrik funtsatzen ahalko da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak 124. artikuluan aipatzen dituen arrazoieta.

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, EUSKARABIDEAREKIN KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA ADIERAZTEKO.

..... jauna/andreak, zenbakidun
NANA duenak,-(a)ren ordezkari
(.....IFK), / bere izenean (ezabatu behar ez dena), bere
erantzukizunpean adierazten du:

- 1) Berak edo ordezkatzan duen entitateak betetzen dituela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 14. artikuluan jarduteko, gaitasun juridikoa edukitzeko eta ordezkari izateko ezarritako baldintzak.
- 2) Kontratazioa arautzen duten agiriak ezagutzen eta onartzen dituela eta haiek gauzatzeko hitza ematen duela, baldintzei hertsiki loturik.
- 3) Ez dagoela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluan kontratatzeako debekurako ezarritako zergatietako batean sartuta.
- 4) Eguneratuak dituela Gizarte Segurantzaren eta zerga arloko bere betebeharrak guztiak.
- 5) Baldintza-agirian jasotako kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionalaren arloko baldintzak betetzen dituela.
- 6) Betetzen dituela kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko eskaturiko lege baldintzak.
- 7) Nafarroako Foru Komunitateko edozein ordenatuko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela prozeduraren ondoriozko gorabehera guztietarako, legokiokeen jurisdikzio-foruari uko eginik.
- 8) Helbide elektroniko hau ematen duela, prozeduraren zeinahi faserekin loturiko jakinarazpenak bide telematikoen bidez jaso ahal izateko:
.....
- 9) Aurreikusten duela ondoko prestazioak azpikontratatzea. Ondorio horietarako, azpikontratatzen adostasun adierazpenak atxikitzen dira (soilik azpikontratazioa aurreikusten bada).

PRESTAZIOA	AZPIKONTRATISTA

Adierazpen honetan aipatzen diren inguruabarrak betetzen dira eskaintzak aurkezteko epearen bukaeran.

(Tokia, eguna eta sinadura)

II. ERANSKINA

FORMULEN BIDEZ ZENBATESTENAK DIREN IRIZPIDEAK

a) Azpigituluak hizkuntzak	12 puntu, gehienez
Informazio pilulek azpigituluak edukiko dituzte, dagokien hizkuntzan (euskaraz eta gaztelaniaz). Eskakizun horretatik aurrera, 2 puntu emanen dira pilula bakoitzeko, SRT eta SBV artxiboak gaztelaniatik frantsesera, ingelesera, arabierara, portugalerara, errumanierara eta bulgarierara itzultzeagatik (gehienez 12 puntu).	Hizkuntza gehiagotan egitea
b) Informazio-pilulak:	4 puntu, gehienez
Ezarritako nahitaezko informazio-pilulez gain, enpresak gehiago egiten baditu, bakoitzeko 2 puntu emanen dira (gehienez 4 puntu).	
c) Sare sozialetan hedatzea	4 puntu, gehienez
4 puntu emanen dira sare sozialetan hedatzeko planteamendu bat azaltzen bada.	
d) Irizpide sozialak	10 puntu, gehienez

Langabezian dauden emakume gazteak (18-30 urte) kontratatzea: 2,5 puntu emanen dira lantaldean sartzen den emakume bakoitzeko, gehienez 5 puntura arte.	
Desgaitasuna dutenen kontratazioa: 2,5 puntu emanen dira % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen langile bakoitzeko (kontratura atxikitako taldearen barnean egon beharko dute), gehienez 5 puntura arte.	

III. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Sinatzen duena, _____ jauna/andrea
(NANa edo IFZ: _____; helbidea:
_____; telefonoa: _____), bere
izenean (edo _____ ordezkatzuz), ikus-entzunezko batzuk grabatu
eta editatzeko eta horiei lotutako euskarri komunikatiboak egiteko proiektua
kontratatzeari dagozkion administrazio-klausula eta zehaztapen teknikoen agiriaz
informatua.

PREZIOA

_____ euro (gehi BEZa).

Iruñean, 2024ko _____ aren (e)(a)n

IV. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO LIZITATZAILEEN ERREGISTROAN JASOTAKO DATUAK EZ DIRELA ALDATU ADIERAZTEKO*

Izena: _____ NAN zenbakia: _____ ,
Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailen Erregistroan _____
zenbakiarekin izena eman duen enpresaren _____ gisa (1), neure
erantzukizunpean aitortzen dut Lizitatzailen Erregistroak dituen enpresaren datuak
indarrean daudela eta ez direla batere aldatu, eta Nafarroako Foru Komunitateko
Lizitatzailen Erregistroko izena ematearen ziurtagirian, _____ zenbakiko
espedientean, agertzen diren berak direla. Ziurtagiria agiri honekin batera aurkezten
dugu parte hartu ahal izateko ikus-entzunezko batzuk grabatu eta editatzeko eta horiei
lotutako euskarri komunikatiboak egiteko proiektu bat kontratatzeko lizitazioan.

(1) Adierazi administratzailea ala ahaldua den.

(tokia, data eta sinadura)

* Argibide gehiago: www.navarra.es (urratsak: zerbitzuen katalogoan, kontratazioen
barnean eta haiekin zerikusia duten esteketan, jo Lizitatzailen Borondatezko
Erregistrora)

V. ERANSKINA

BATERAKO PARTE-HARTZE EREDUA

.....jaunak/andreak,NANa/IFZ duenak,
jakinarazpenetarako helbide hau duenak:
.....
....., PK:, herria:, telefonoak:
....., bere izenean /
sozietatearen ordezkari gisara (dagokion bezala), IFZ:

Eskaintza batera parte hartzen duten pertsona edo entitate lizitatzailleek aurkeztuz gero,
adierazi kasu bakoitzean bidezkoa dena:

o Aldi baterako propio eratzen diren enpresari elkarteetan aurkezten dira.

☐ Bai ☐ Ez

o Taldean batera aurkezten dira. Hala bada, adierazi bakoitzaren parte-hartze maila zein den.

☐ Bai ☐ Ez

Enpresaren izena..... ⇒ ☐ Partaidetza %

Enpresaren izena..... ⇒ ☐ Partaidetza %

(Erantzukizunpeko adierazpena faltsutzeak kontratatzeke debekua ekarriko du, hala xedatzen baitu Kontratuei buruzko Foru Legeak, 22.1.i artikuluan).

(Herria, data eta pertsona edo entitate lizitatzaillearen sinadura)